

Lontxo Oihartzabal jn.  
Gaizka Gabantxo jn.  
Javier del Campo jn.  
Miren Izagirre and.  
José Ramón Kortabitarte jn.  
Pilar Ramírez and.  
Gonzalo Larruzea jn.  
Raimundo Rubio jn.  
Manu Udaondo jn.

## **05/12 IRIZPENA**

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2005eko abenduaren 22ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. **Batzorde** horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: Diseinuko goi mailako ikasketetako barne-diseinuko espezialitatearen curriculuma zehazten duen dekretu proiektuari buruz.

Eva Blanco and.  
Idazkari teknikoa.

## **SARRERA**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Euskadiko Eskola Kontseiluari eskatu dio Diseinuko goi mailako ikasketetako barne-diseinuko espezialitatearen curriculuma zehazten duen dekretu proiektuari buruzko aginduzko txostena eman dezan.

## **AURREKARIAK**

Urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzkoak bere 49.2. artikuluan zehazten du Diseinuko ikasketak goi mailako ikasketak direla eta Unibertsitateko Diplomadun maila ematen dio Diseinuko tituluari xede guztietarako. Beste alde batetik, 38. artikulua ikasleei kalitatezko arte heziketa ematea eta diseinuaren biharko profesionalen kualifikazioa bermatzea finkatzen du xedatzen. 49.4. artikulua xedatzen du ikasketa hauetara sartzeko Batxilergo titulua edo balio bereko beste batzuk eduki eta sarbide proba gainditu beharko dela.

Irailaren 24ko 1496/1999 Errege Dekretuak Diseinuko goi mailako ikasketak, sarbide proba eta ikasketa hauen curriculumaren oinarriko alderdiak ezartzen ditu. 17. artikulua zehazten du hezkuntza administrazioari dagokiola finkatzea ikasketa hauei dagokien curriculum eta gutxienezko irakaskuntzak.

2001eko urriaren 25eko Aginduak oinarrizko izaera du eta ikasleen ebaluazioa, akreditazio akademikoa eta mugikortasuna gauzatzeko prozesuaren oinarrizko elementuak finkatzen ditu.

## **EDUKIA**

Dekretu proiektu honek 16 artikulua, 2 azken xedapen eta 2 eranskin ditu.

1. artikulua arauaren xedea zehazten du: Diseinuko goi mailako ikasketetako barne-diseinuko espezialitatearen curriculuma ezartzea. 2. artikulua aplikazio eremua zehazten du.

3. artikulua zehazten du ikasketa hauek burututakoan diseinuko titulua emango zaiola egin dituenari; lau espezialitate bereizten ditu ikasketa hauetarako eta ikasturte kopurua eta kreditu kopuru osoa finkatzen ditu.

4. artikulua ikasketen xedea zehazten du. 5. eta 6. kapituluek espezialitate bakoitzaren helburu orokorrak eta berariazkoak zehazten dituzte hurrenez hurren.

7. artikulua edukien antolaketaren egitura arautzen du, irakasgai ardatzak eta berariazkoak bereizirik, bestalde aukerako irakasgaiak ere egon daitezkeela aurreikusten da. 8. artikulua karrerako azken proiektuaren oinarrizko alderdiak arautzen ditu.

9. artikulua ebaluazio irizpideak ezartzen ditu eta 10. artikulua haien ezaugarriak zehazten ditu.

11. artikulua ikasketa hauetara sartzeko modalitateak zehazten ditu, ikasketa-baldintzak betetzen dituztenentzat eta betetzen ez dituztenentzat, eta 12. eta 13. artikuluek bi ikasle mota hauentzako sarbide probak arautzen dituzte. 14. artikulua sarbide probaren kalifikazioa arautzen du. 15. artikulua proben deialdia arautzen du.

16. artikulua ikastetxe publikoetan eta itunpekoetan ikasleak onartzeko irizpideak arautzen ditu.

Lehenengo azken xedapenak arauzko garapena baimentzen du eta bigarrenak araua noiz sartuko den indarrean zehazten du.

## **BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK**

Dekretu honen xede nagusia Diseinuko goi mailako ikasketen curriculuma finkatzea da. Proiektu honek oinarrizko ezaugarriak jasotzen ditu irakaskuntza hauen antolamenduaz, prestakuntza praktikoaren faseaz, ebaluazioaz eta sarbide eraz. Bestalde, I. eranskinean honakoak zehazten dira: ikasketa hauen irakaskuntza osatzen duten irakasgaiak, hauetako bakoitza zein jakintza-arlori dagokion, irakasgai ardatzak eta berariaz-

koak. Bestalde, helburuak, edukiak eta ebaluazio irizpideak, eta bakoitzaren ikasturte eta kreditu kopurua ere zehazten dira. II. eranskinak karrerako azken proiektuaren helburuak, edukiak, antolaketa eta ebaluazioa zehazten ditu.

Dekretu proiektua aztertu ondoren ondoko aldaketa hauek proposatzen ditugu:

- **4. artikulua:** artikulua honetan aipatzen diren helburu orokorrek Errege Dekretuan zehaztutakoak bere horretan jasotzen dituztenez, komenigarria litzateke, curriculuma garatzeko beste dekretu batzuetan egiten den bezala, ondoko erredakzioa sartzeari: "irailaren 24ko 1496/1999 Errege Dekretuko 11. artikuluan xedatu denarekin bat etorritik, Diseinuko goi mailako ikasketen helburu orokorrak...".
- **9. artikulua:** ebaluazio irizpideak: aurreko artikuluan bezala, erredakzioan honela jartzea proposatzen dugu: "irailaren 24ko 1496/1999 Errege Dekretuko 15. artikuluan xedatu denarekin bat etorritik, Diseinuko goi mailako ikasketen ebaluazioa...".
- **10. artikulua:** gure iritzian erredakzioa nahasia da, alderdi berdinak arautzen ez dituzten hiru arau desberdin aipatzen ditu eta.
  - Alde batetik, dekretuaren 9. artikuluan xedatzen diren ebaluazio irizpideak aipatu behar lirateke; hauek bere horretan jasotzen dituzte 1496/1999 Errege Dekretuaren 15. artikuluan xedatutakoak.
  - Beste aldetik, 2001eko urriaren 25eko Agindua aipatu behar litzateke, izan ere, honetan ez da ebaluazio irizpiderik jasotzen, ebaluazio prozesuaren oinarritzko elementuak baizik. Agindu honek oinarritzko izaera du.
- **11. artikulua:** bi akats daude artikulua honetako 1. eta 2. idatz-zatietan. Zehazki Dekretuaren 11. eta 12. artikulua aipatzen direnean, 12.a eta 13.a aipatu behar lirateke.
- **Eranskinak:** curriculumaren garapenari dagokionez, gure iritzian, Errege Dekretuan xedatutako oinarritzko alderdiak jasotzen dira, eta helburuak, edukiak eta ebaluazio irizpideak era egokian adierazita daude. Ziurtzat jotzen dugu curriculum proposamen hau prestatzerakoan irakasleen eta tarteko diren sektore profesionalen iritzia kualitatiboa kontuan hartu dela. Nolanahi ere, berariazko helburuarekin lotuta dauden eduki orokor batzuen hutsunea igartzen dugu *l) beharrezko prebentzio neurriak erabiltzea ekoizpen prozesuak ez daitezkeen kaltegarriak izan osasunerako eta ingurumenerako*. Osasunarekin eta lan arriskuen prebentzioarekin lotutako edukiak, alegia.

Esandako guztiagatik, eta kontuan hartuta gure aburuz oinarritzko arauekin bat datorrela, eman nahi den prestakuntzarako proposatutako garapena egokia izanik eta era egokian adierazita dagoelarik, egoki deritzogu aurkeztu zaigun Dekretu proiektuari.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2005eko abenduaren 23a

IDAZKARI TEKNIKOA,

Sinaturik : Eva Blanco

Ikus-onetsia

LEHENDAKARIA,

Sinaturik : Lontxo Oihartzabal

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA  
SAILBURUA.